

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 18an hartutako erabakiaren laburpena: 2020ko inauterietan parte hartuko duten konpartsei diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS (Identif.): 478797

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehen. Onuradunak

Entitateak, baldin eta elkarte gisa legez eratuta badaude, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean dagokien Erregistro Ofizialean erregistratuta badaude eta egoitza Gasteizko udalerrian badute.

Bigarrena. Helburua

2020ko inauterietan konpartsen parte-hartzea sustatzea.

Hirugarrena. Oinarriak

Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 18an egindako ohiko bilkuran onartutakoak; ALHAOn argitaratuko direnak.

Laugarrena. Zenbatekoa

80.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa da, oinarri hauen deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 18an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
FELIPE GARCÍA MIRAVALLES